

## **2013KO ZEMENDIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2013ko zemendiaren 28an, arratsaldeko 7:00etan

**BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2013KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2013ko urriaren 31ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe. Izan be, aktan bertan era honetara jasota geratu da urriaren 31ko udalbatzan Bildu-Bakio taldeak aitatu eta onartu zan ondorengo hau: *herriko hondakin solidoen eta paperaren eta kartoiaren gaikako bilketari buruzko zerbitzu publikoaren Administrazio Klausulen Agirian hauxe jasotea: zerbitzuan arituko diran beharginei sektoreari buruzko lurraldeko hitzarmena aplikatuko jakela, hori ganera gitxienez.*

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

*270/2013.- CONCEPCION LANDALUCE andreari LUZARRAGAKO BIDEKO 1eko JAUBEKIDEEN KOMUNIDADEAREN fatxada barrizteko udal lizentzia emotea.*

*271/2013.- LAUREN DEL CAMPO jaunari Zubiaurrealde 39. zenbakiko inguruaren egokitze lanak legezatzeko eta egindako obrak guztiz amaitzeko udal lizentzia emotea.*

*272/2013.- Iker Muruaga jaunari, Saioako auzokideen komunitatearen izenean, Kultur Etxeko bideo gelea erabilteko udal baimena emotea.*

*273/2013.- BEGOÑA AGUAYO IBAÑEZ andreari, Bakio Hedatzen alkartearen izenean, zientzi tailerrak egiteko probalekua erabilteko baimena emotea.*

*274/2013.- María Carmen Garay Ribeiro de Aguiar andreari Kultur Etxeko gela txiker batean ingeles eskoletarako udal baimena emotea.*

*275/2013.- Sarratxu eta beste batzuk” 46. herri onurako mendian dagoan hainbat eukalipto multzoaren baso-aprobetxamendua kontratatzeke eskaintza ekonomikorik abantailatsuena aurkeztu dauan “Saturtino Gómez Otero-MADERAS ARANTZARI” lizitatzaileari eskatzea hamar eguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteke.*

*276/2013.- Etxebarrialde kaleko 10.eko finkako terrazan egindako obrak klandestinoztat jotea, udal lizentzia barik egin dirala eta.*

*277/2013.- María Rita Gonzalez Urigoitia andrearen etxebizitza eta horrerri lotutako ondasunei jagokenez, Bakioko Udalak erosteko daukan lehentasunezko eskubidea ez erabiltea.*

*278/2013.- Eva María Sanz Fernández andreari 129,07 euroko kopurua itzultzea ibilgailuen zergaren ordainketan izandako bikoiztasuna dala eta.*

*279/2013.- IRENE GONZALEZ PEREZ andreari, IRUNE LEGARRETA ELORRIETA andrearen izenean, udal lizentzia emotea Mendialdeko bideko 2. zenbakiko 4. 4. atean (Itxasgane) dagoen etxebizitzako suetea eta bainugela barrizatzeko.*

*280/2013.- ANGEL L. VERDEJO jaunari udal lizentzia emotea Birjilandako bideko 5. zenbakiko 4. 6. atean (Torre del Sol) dagoen etxebizitzako suetea eta pasilloa barrizatzeko.*

*281/2013.- JASONE LONGARAI BARRUETABEÑA andreari, IZPIORLEGI eraikineko komunitatearen izenean, udal lizentzia emotea KOMUNIDADE horren fatxadako hegala konpontzeko eta elementu batzuk iragazgaitzeko.*

282/2013.- RUBEN GAUBEKA jaunari, ABIO TXAKOLINA S.L. txakolindegia izenean, udal lizentzia emotea Elexalde auzoko 5 A-n dagoan txakolindegia zorua barriztatzeko.

283/2013.- Osakidetza eta Bakioko Udalaren arteko Addenaren klausula gehigarria onestea, osasun zentroaren mantentze gastuen konpentsazio modura emon beharreko kopurua 2012ko KPIren arabera eguneratu daiten.

284/2013.- Laura Uriarte andreari zemendiaren 15ean Kultur Etxeko bideo-gelearen erabilera alokatzea.

285/2013.- 10166228K IFZa daukan "Saturnino Gómez Otero enpreari 83.275,00 € (IVA %12a barruan) adjudikatzea Bakioko "Sarratxu eta beste batzuk" 46. herri onurako mendian dagoan hainbat eukalipto multzoaren baso-aprobetxamendua.

286/2013.- KAITIN AMORRORTU GOMEZ andreari, M<sup>a</sup> TERESA GOMEZ RUIZ andrearen izenean, udal lizentzia emotea Portuondoko bideko Igo zenbakiko 8. C-ko etxebizitzako bainuontzia kendu eta dutxa iminteko.

287/2013.- Bizkaiko Foru Aldundiaren zemendiaren 5eko 130/2013 Foru Dekretuaren arabera, Bakioko arau subsidiarioen berrikusketa osoaren beharrak finantzatzeko 136.000,00 euroko diru-laguntza eskatzea

288/2013.- Basigoko bide nagusiko 116.n dagoan eraikinean igogailua ipini eta horretarako beharrezkoak diran obrak egiteko, eraikin horren jaubekideen komunitadeari lizentzia emotea

289/2013.- JOSE IGNACIO PALACIO PEÑA jaunari udal lizentzia emotea Txirrikaldeko bideko 5. zenbakian dagoan etxebizitzako bainugelak barriztatzeko.

290/2013.- Iraungipena dala eta, Reina Maria Blandon Galiano andreari Bakioko biztanleen udal erroldaren inskripzioan baja emotea

291/2013.- Honako pertsonen ofiziozko bajaren espedienteari jagokon prozedurari ekitea: Adriana de Sousa andrea eta Leandro Negri jauna

292/2013.- Espediente bat hastea MIGUEL PEREZ ANTON jaunari (NAN zk.: 29.036.175-D) Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.

293/2013.- JOSE FRANCISCO RIUS BARRAGUER jaunari udal lizentzia emotea Zarrakoa bideko 9. Zenbakiko 8. I-n dagoan etxebizitzako bainugelak barriztatzeko.

294/2013.- Elexaldeko urbanizazio obrak dirala eta, Promociones Gailurralde SL enpresak eskatutako zorren konpentsazioa.

*295/2013.- Herriko urigintza plangintza berrikusteko esleipenari buruzko prozedureari hasikera emotea, bai eta kontratazino espedientea onartzea be.*

Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu-Bakio udal taldearen izenean, 274/2013 dekretuaren harira ondorengo hau dino: *udal lokalen erabilera esleitzeko orduan, erabilten dan erispideagaz ez datorrela bat. Izan be, pertsona bateri ikastaroren bat emon ahal izateko lokala ixten jako, beti be 10 euroko prezio publikoa ordaintzen badau, eta horraino ondo dago ze udal ordenantzan horrela dakar-eta, ganera, ikastaro horregaitik ikasleei diru bat kobratzen bajakoz, ziur asko irabaziak izango dauzalako izango da; baina, gertatzen da be bai, pertsona edo talde batek berbaldi edo ekitaldi bat emoteko udal lokalaren erabilera eskatzea eta jarduna irabazi asmo bakoa eta herriarentzat interesagarria izan arren udalak prezio publikoa kobratzea, eta hori oker handia da, ze azken kasu horretan lokala erabiltzea doan izan beharko litzatekelako.*

*Zinegotzi horrek dino be horrelako kasuez gain, beste egoera batzuk zuzentzeko be (esaterako, eskabideak behar dan modura egitea edota eskatzaileari alde zuzeneko argibideak eskatzea irabazi asmoko jarduna egiteko lokala eskatu ezker, eta abar,) udal lokalen erabilera arautzen dauzan ordenantzea aldarazo beharra dagoala.*

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez gerta daitekela ordenatzea aldarazoteko arrazoiak egotea, baina horri buruz batzordean eztabaidatu behar dala.

### **3.- BAKIOKO KIROLDEGIA KUDEATU ETA USTIATZEKO ZERBITZUAREN ADMINISTRAZINO KONTZESINOAREN ESLEIPENARI BURUZKO PROZEDUREARI HASIKERA EMOTEA ERABAGI, BAI ETA KONTRATAZINO ESPEDIENTEA ONARTU BE, ADMINISTRAZINO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK BARRUAN DIRALA.**

Izenburuan aitaturako agirien edukinaren jakitun diran ezker, udal talde bietako arduradunek euren eritxia emoteari ekin deutse.

Horrela bada, Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu-Bakio taldeko bozeroaleak, beste edozer baino lehen aurreratu dau Baldintza Teknikoen Agirian akats bat dagoala; izan be, 4. klausularen 4. paragrafoan azaldutako gairako (zerbitzua handitze) administrazino klausula berezien agiriaren 20. klausula aitutzen da aplikagarria, 20. klausula horrek (arau-haustek) gai horregaz zerikusirik ez daukan arren.

Argibide hori azaldu eta gero, zinegotzi horrek idazkariari ondorengo hau galdetu deutso: administrazino klausulen agirian ageri da proposamenak aztertzeko erispideen artean balio-judizio baten arabera kalkulatu beharrekoak %70 dirala eta automatikoki kalkulatu beharrekoak, barriz, %30a, ia modu horretara portzentaia jartea legala dan.

Idazkariak dinotso legala bai dala, baina arlo publikoaren kontratuei buruzko arautegiaren arabera, balio-judizioari buruzko erispideen balorazinoa izendatu beharreko adituen batzordearen esku itxi behar dala.

Felix Jauregizarrek hauxe adierazo dau be:

*Kiroldegiaren lehengo kudeaketa ereduaren eta udal gobernua orain proposatzen daunaren artean aldaketa nabarmena dago, ze lehen kiroldegiaren finantzabidearen oinarria zerbitzua emoteagaitiko prezio publikoak jasotzean zetzan, enpresa kudeatzaileari ordaintzeko, baina udal gobernua ikusirik eredu hori hondamena izan dala, orain be kiroldegiaren kudeaketa enpresa pribatuari emon gura deutso, baina beste modu batera kudeatzeko, pentsaurik hobeto funtzionauko dauala, hau da finantzatzeko ez legoke kanpoko diru iturririk, ez diru-laguntzarik, ezta prezio publikorik be, beraz, pribatizazino hutsa izango litzateke.*

*Bildu-Bakio udal taldeak orain urte bi kiroldegia kudeatzeko proposamena aurkeztu eban, eta proposamena zan udalak zuzenean kudeatzea, kanpoko enpresa pribatuaren bitarteko barik, eta horrek bere zailtasunak izan leikezan arren, uste dogu kiroldegia zerbitzu publikoa dan neurrian kudeatzeko modu egokiena dala, kiroldegiak bideragarria izatea gura badogu behintzat. Izan be, udalak kudeaketea bideratu behar dau, beharbada herritarren laguntzagaz; eta gure ustea da aukera hori ez dala eztabaidatu ezta landu be.*

*Kiroldegia da jendea batu eta hartu emonak izateko herriko leku esanguratsuen, eta hori horrela dan ezker, udalak ekipamendu hori mantentzeko orduan aparteko begirunea izan beharko leuke. Ganera, beharbada, diruz lagundu beharko leuke, jendeak zerbitzuak behar dan lez jaso daizan, , ze herritarrek bai galdetzen dabe kiroldegia funtzionatzeko ia zelan ez dagoan dirurik, eta, beste ekipamendu batzuetarako, ostera bai, txakolingunea kasuan, esaterako.*

*Beraz, esan dogun modura BILDU-BAKIO taldearen proposamena kiroldegia kudeatzeko ez da pleguan dakarren modura egitea, hau da, enpresa pribatuaren bidez, udalak zuzenean egitea baino, herritarrei zerbitzu publiko duina eskaintzeko baliabideak ipiniz.*

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV izenean, dino: kiroldegia zabaltzen saiatu behar gara, eta uste dogu gure taldeak aukeratutako bidea egokiena dala, hau da, kudeaketa enpresa pribatu baten bidez egitea, pleguetan ageri diran baldintzak betez.

Azkenik, zinegotziek botoa emoteari ekin deusien ezker, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

**Bakioko kiroldegia kudeatu eta ustiatzeko zerbitzuaren administrazio kontzesinoaren esleipenari buruzko prozedurari hasikera emotea, bai eta kontratazio espedientea onartzea be, kontratua eraenduko daben administrazio klausulen eta baldintza teknikoen agiriak barruan dirala. Gauzak horrela, adjudikazioa prozedura zabal bitartez izapidetuko da, kontratuak 2014an hasita urte biko iraupena izango dau (beste urte bira arte kontratua luzatu ahal izango da), ustiapena eta kudeaketagaitik ordaindu beharreko lizitazio prezioa, barriz, 715,00 euro urteko gehi BEZa izanik.**

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaechen zinegotziak, barriz, abstenidu egin dira.

#### **4.- KULTUR ETA KIROL TALDEEI DIRU-LAGUNTZAK BANANTZEKO PROPOSAMEN EBAZPENA ONARTZEA.**

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau kultur eta kirol taldeei diru-laguntzak banantzeko proposamena informazio batzordean aurkeztu zala eta, orain, udalbatzari aurkezten jakola, beti be horrek onarpena emon daian.

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU/BAKIO taldearen izenean, hauxe dino: *diru-laguntzen banaketea zehazteko udal gobernuak 2011n herriko taldeekaz batu zan eta banaketea aurreko urteko erara egitea erabagi eban. 2012an diru-laguntzen zenbatekoak, aurreko urtekoakaz alderatuz, %10 murriztu ziran, krisi ekonomikoa dala-eta. 2013rako proposatutako diru-laguntzen zenbatekoei jagokenez, barriz, 2012ko bardinak dira, beraz, murrizketea bere horretan itxi da. Hortaz, ez da ulertzekoa udal gobernuak murrizketei bere horretan eustea, jakinda taldeak dirala herriari bizitasuna emoten deutesenak, ze herriko ekitaldiak eta jarduerak eurek antolatzen dabez-eta.*

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen izenean, hauxe adierazo dau: *aitortu beharra dago taldeen garrantzia herriari bizitasuna emoteko orduan, zer esanik ez eurak dirala herrian egiten diran kultur eta kirol ekitaldien antolatzaileak. Egia da diru-laguntzak murriztu egin dirala, baina egia da be bai horreek aparte taldeei beste laguntza mota batzuk be emoten jaketzala, eurekaz izaten diran hartu-emonen ondorioz.*

Segiduan, zinegotziak botoa emoteari ekin deutesie eta EAJ-PNV taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziak aldeko botoa emon daben ezkerreko, bertaratutako gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**2013ko urteari jagokenez, kultur eta kirol taldeei diru-laguntzak banantzea era honetara; beti be, kultur eta kirol taldeek aurkeztutako eskabideen arabera.**

**1.- Alaitasuna: 570 euro.**

*2.- Atxurre FST: 570 euro.*

*3.- Bakioko Abesbatza: 1.700 euro.*

*4.- Bakio Hedatzen Alkartea: 570 euro*

*5.- Bakio Kirol Taldea: 8.450 euro.*

*6.- Bakio Surf Taldea: 570 euro.*

*7.- Bizilore: 570 euro.*

*8.- Gaueka Herri Kirol Taldea: 1.965 euro.*

*9.- Itxas-Alde: 2.195 euro.*

*10.- Marta Txori: 570 euro.*

*11.- Urkitza Ikastetxeko Guraso Alkartea: 2.270 euro.*

*Guztira: 20.000 / 4514810120 Partidan ezarritako dirua: 20.000*

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziak, barriz, diru-laguntzen banaketa horren aurkako botoa emon dabe, Felixek esposizino atalean aitatuagoaz bat etorritz.

## **5.- ABENDUAREN 3AN EUSKERAREN NAZIOARTEKO EGUNA DALA-ETA:**

**A) BILDU/BAKIO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

**B) EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

A) BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua:

Lehenengo eta behin, Amets Jauregizar zinegotziak, BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua irakurtzeari ekin deutso, edukia hauxe izanik:

## Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko eguna da. Ospatzeko euskararen gizarte erakundeek, euskaltzaleek eta erakunde publikoek lan eskerga egin dugulako euskararen normalizazioan azken hamarkadetan eta hizkuntza asko ez bezala bizirik iritsi delako gaur egunera.

Baina ospakizunak neurritz egin behar dira, izan ere, jakitun gara, euskara bizirik egon arren, osasunetik urrun dagoela. UNESCOk berak hizkuntza ahulen zerrendan jarri du euskara eta euskara normalizaziotik urrun dago oraindik.

Beraz, euskararen normalizazioa aldarrikatzeko eguna da batez ere, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izan dadila aldarrikatzea.

Udalak erantzukizun zuzena du eta ezin du hizkuntz politikaren ardura hori bere kudeaketa politikotik kanpo utzi. Eta eragin behar du Udalaren tresna nagusiak – euskararen udal ordenantza, udal barruko zein udalerriko planak eta neurri praktikoak zein aurrekontuak – emankorrak izan daitezen Euskal Herri euskaldunaren bidea bultzatzeko

Euskara normalizatuko bada hizkuntza politika berria eta herritarren aktibazioa behar ditu ezinbestean. Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskara normalizazio bidean jartzeko politika eta erabaki ausartak hartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

1. Euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko ditugu, eta euskara administrazio osoan lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Euskararen arnaguneak -espazio sozial euskaldunak- bultzatu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.
3. Udalaren kontratazio-publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu.
4. Udal honek hitzun berriak lortu eta euskararen ezagutza udalerrian unibertsalizatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.
5. Herriko euskararen aldeko bilgune zabalak –euskalgintza, eragileak, sektore desberdinerako erakundeak, udala – sortzen eta gorpuzten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.

Udalaren helburua da gure herrian euskara izatea harremanetarako eta bizitza sozialerako hizkuntza nagusia. Baina horretarako hizkuntza politika berria eta hizkuntza-plangintza berriak martxan jartzeaz gain, euskaldunak eta hitzunak behar ditugu. Gure herriko euskaldun guztion lana da euskara gure herriko hizkuntza nagusi bihurtzea eta horretarako euskaraz jakitea ez da aski bizi dadin, hitz egin behar da.

Hori guztia dela eta Udalak herritar euskaldunak gonbidatzen ditu euskaraz bizitzeko konpromisoa har dezaten:

1. Dakienak edonon, edonorekin eta edonoiz erabiliz
2. Ez dakienak euskara ikasiz



3. Erdipurdi dakienak euskara erabiliz, hobetuz.

Halaber, udalak herritar euskaldunak gonbidatu egiten ditu udalarekin dituzten harreman guztietan, ahozkoetan zein idatzizkoetan euskaraz jardun daitezzen.

Azkenik, Udaletzeko balkoi nagusian "Euskaraz bizi nahi dugu" pankarta koloretsua jarriko du Udalak abenduaren 3tik (Euskararen Nazioarteko Eguna) 10era arte (Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna) eta mozio honen edukia onetsi izana udalerrian bando bitartez jakinarazteko konpromisoa hartzen dugu.

2013-12-03an, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN.

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes, Jon Peli Hormaeche eta Alberto Bilbao zinegotziek testuaren aldeko botoa emon dabe.

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, testuaren kontrako botoa emon dabe.

Ondorioz, mozinoaren aldeko 5 boto eta kontrako 6 boto zenbatu diran ezkerre, Bakioko Udaltzako ez dau testua onartu.

B) EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako testua:

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako testua irakurri dau, edukia hauxe izanik:

**“Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da.** Euskararen balio unibertsala aldarrikatzeko eguna da, eta euskararentzat beste hizkuntzen artean dagokion tokia aldarrikatzeko eguna.

*(...) Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...)*

(Koldo Mitxelena)

Ospatzeko eguna eta konpromisoak hartzeko eguna da Abenduaren 3a.

- **Ospatzeko eguna da,** euskararen bilakaera munduan eredutzat hartzen baita. Euskarak, oro har, aurrerakada handia (0.5 puntu urteko) egin du azken hiru hamarkadotan, inoiz izan dituen baino hiztun gehiago ditu, eta gizarte-bizitzako esparru ugarian goraka doa euskararen erabilera, horietako hainbatetan hizkuntza erabat ezezaguna izan den arren. Ospatzekoa ere bada euskararen 30 urteotako aurrerabidean erabakigarria izan den kontsentsu sozial eta politiko zabala erdietsi izana, adostasun hori bera baita, azken batean, hizkuntza politika integratzaile baten giltzarri nagusia.

- **Konpromisoak hartzeko eguna da**, oraindik ere asko dugulako egiteko euskara ondoan dituen hizkuntza bien berdintasun sozialera heltzea nahi badugu. Gero eta gizarte elebidunago baten bagaude ere, euskarak bidea egin beharra dauka oraindik, elebitasun orekatura iristeko. Eta horretarako ezinbestekoena, euskararen sustapena ardatz nagusi hartuta hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzara eramango gaituzten ekimen eta praktika adostu eta demokratikoak bultzatzea eta gauzatzea da. Kontuan izanik, beti ere, erabilera dela euskararen eta beste edozein hizkuntzaren bizi-indarraren erregai bakarra.

Guk, udal talde honek, Euskararen Nazioarteko Egunean gure gogoia adierazi nahi dugu euskarak gure egunerokotasunean gero eta toki gehiago har dezan, eta herritarrak animatu nahi ditugu euskara gero eta gehiago erabiltzeko, ohiko eginkizun eta egoeretako hizkuntza izan dezaten. Dakigunok gero eta gehiago erabil dezagun, eta ez dakitenek euskarara hurbiltzeko urratsak eman ditzaten: horra euskararen geroa eta bizi-indarra bermatzeko ezinbesteko ekinbidea. Gutariko bakoitzaren ardura da.

#### **Hori guztiagatik udal honek konpromisoa hartzen du:**

1. **Gure herritarrei udal administrazioarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera bermatzeko.** Herritarren eskubideak bermatzea eta defendatzea gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa den heinean, gure udalak bermatu eta defendatu beharreko eskubidetzat jotzen baitu hizkuntza eskubidea bera ere.
2. **Euskara gero eta gehiago udal honetan lan hizkuntza izateko**, udalean euskararen erabilera sustatu eta bermatuz, alkate eta zinegotziek euskararen erabileraren aldeko jarrera erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek beren lanean euskararen erabilera areagotuz.
3. **Abenduaren 31karako V. Plangintzaldiari dagokion euskara plana egina izateko.**
4. **Herritarrengan euskararen aldeko atxikimendua sendotzea helburu duten ekintzak bideratzeko**, euskararen aldeko jarrerak sustatzeko, eta herritarrak euskararen munduez disfrutatzerantz animatzeko.
5. **Euskararen erabilera, bereziki gazteen artean eta eremu ez formaletan sendotzeko ekimenak planifikatu eta gauzatzeko**, euskara biziberritu eta sustatzeko plangintza orokorraren baitan.
6. **Udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politiken inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena bilatzeko.**”

Amets Jauregizar zinegotziak dino:

BILDU/BAKIO ados dago udal gobernuko taldeak aurkeztutako testuan adierazotakoagaz, baina horren aurkako botoa emongo dabela arrazoi honeek dirala-eta:

*Erreza da euskeraren erabilera bultzatu behar dala esatea, baina gaur egun nozitzen gagozan krisi ekonomiko larria dala-eta normala da jendeen artean lehentasuna*

*euskereak barik eguneroko bizimodua aurrera atarateko beste beharrian batzuk izatea, eta, hori dala-eta euskeraren erabilera bultzatzeko laguntzak emotea ezinbestekotzat jotzen dogu, baina aurreko urte bietan udal aurrekontuan euskera ikasteko diru-laguntzak udal aurrekontuan zainpetuta egon arren, ez dira banandu; beraz, zelan euskaldungo dogu herria diru-laguntzak kentzen badoguz?.*

“Herritarren eskubideak bermatzea eta defendatzea gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa den heinean, gure udalak bermatu eta defendatu beharreko eskubidetzat jotzen baitu hizkuntza eskubidea bera ere” *horixe bera adierazoten da testuan. Baina herri honetan urteetan ohiturazkoa da herriko medikua erdalduna izatea, eta, gaur egun, hor dago herrian erdaldun hutsa dan mediku pediatrea. Beraz, zelan bermatu eta defendatuko dogu herritarren hizkuntza eskubide hori. Ganera, informazino batzordean medikua euskalduna izatea eskatu eta azaldu be egin ez danean.*

*Testuan konpromiso hau azaltzen da, besteak beste: “udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politiken inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena bilatzea”. Zelan ulertzen da adostasun politikoa udal batzorde informatibo baten be ez bada euskeraren planari buruzko ezer aurkeztu. Horrez gain, adostasun sozialetaz berba egiten da; bada, esan behar da Euskera Topaguneko partaide asko haserre dagoala gai horren inguruan udalaren portaeragaz, eta badala urtebete Euskera Topagunea batzeko deialdirik egin ez dana. Dana dala, eskerrak jendeak erakundetik haratago herria euskalduntzen jarraitu dauala.*

*Euskera Topagunean urte bi entzuten daroaguz EBPn sartu behar ginela, baina Eusko Jaurlaritzako EBPn sartzeko udalbatzak erabagia hartu behar dau, baina, oraindik horrezaz informazino batzorde baten be ez da barbarik egin. Zelan egingo dogu euskeraren V. plangintzaldia EBPntik kanpo? Bada, ezin da egin. Hor dago konpromiso bat ez dana hartu.*

*Hortaz, argudioak daukaguz pentsatzeko udal gobernuak onartu gura dauan testuan jasoten dana ez dala beteko.*

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek testuaren aldeko botoa emon dabe.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes, Jon Peli Hormaeche eta Alberto Bilbao zinegotziek testuaren kontrako botoa emon dabe, Ametsek esandakoagaz bat etorritz.

Ondorioz, mozinoaren aldeko 6 boto eta kontrako 5 boto zenbatu diran ezkerero, Bakioko Udalbatzak EAJ/PNVren testua onartu egin dau.

**EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikulua arabera).**

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen izenean, dino mozino bat aurkeztu beharra daukala, euren ustez presazkoa dalako, eta ganera lehen be informazino batzordean horren ganean berba egin dala; izan be, gaia hauxe da:

“LEHENENGOA.- SNIACE, S.A. enpresearen eta Bakioko Udalaren arteko 1956-06-28ko eskritura publiko bitartez partzuergo bat osotu zan 45 urteko epean, “Sarratxo-Gaubieta-Andiño” izeneko erabilera publikoko 46. mendiaren eta Bakio udalerrriaren jaubetzako ondare mendi biren eremu batzuk eukaliptoz birlandatzeko eta ustiatzeko; udalaren partaidetzea %45ekoa zan eta SNIACE S.A. enpresearena %55ekoa.

BIGARRENA.- 1996-04-29ko eskritura publiko bitartez, partzuergo hori luzatzeko erabagia hartu zan 2013-12-31ra arte; partzuergo horren barruan “Sarratxo-Gaubieta-Andiño” izeneko erabilera publikoko 46. mendiaren eremu batzuek jarraitu eben. Kasu honetan udalaren partaidetzea %52koa zan eta SNIACE S.A. %48koa.

HIRUGARRENA.- Udalbatzak, 2012ko bagilaren 28ko osoko bilkuran, honakoa erabagi eban: "Sarratxu eta bestelakoak" izeneko erabilera publikoko mendiaren baso aprobetxamendua arautzen eben Baldintza Ekonomikoen Agiria eta Baldintza Tekniko eta Fakultatiboen Agiria onestea, beti be udalak “SNIACE S.A.” enpreseagaz egindako partzuergoaren barruko mendiaren eremuetako baso aprobetxamenduan eukan partaidetzeari egokonez eta enpresa horrek, gorago aitaturako dokumentazioaren arabera, baso aprobetxamendu hori egingo ebala kontuan hartuta 4 arlotan zehaztuz (Baleta, Amutsa, Aritximeta y Garrakola).

LAUGARRENA.- Bakioko Udalbatzak, 2013ko urriaren 31n egindako osoko bilkuran, erabagi eban 2012/06/28an onetsitako baldintza ekonomikoen agiria aldarazotea, baina bakar-bakarrik fidantzei buruzko 4. puntua baino ez; horrenbestez, behin betiko bermea aprobetxamenduaren %10eko kopuruan finkatu zuen (aprobetxamendu hori 245.960,00 eurokoa izan zan).

BOSGARRENA.- Azkenik, Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak 2013-11-26an aldarazotako baldintza ekonomikoen agiria eta baldintza tekniko-fakultatiboen agiria aurkeztu dauz; udalbatzak 2012/06/28an onetsitakoen aldean, agiri horreetan izan diran aldakuntzak honako honeek dira:

Baldintza ekonomikoen plegua: *lau multzoei jagokezan zenbatekoak 2013ko abenduaren 31 baino lehenago ordaindu behar izango dira (data horretan partzuergoa amaitzen da).*

Baldintza tekniko-fakultatiboen agiria: *azken multzoaren aprobetxamenduak amaituta egon beharko dau 2014ko bagilaren 30erako.*”

Horrenbestez, bosgarren paragrafoan azaldutako aldarazpenak indarrean sartu daitezcan, udalbatzak Baldintza Ekonomikoen Agiria eta Baldintza Tekniko eta Fakultatiboen Agiria onetsi behar dauz; horrek beregaz dakar 2012/06/28an onetsitako agiriak aldatzea.

Alkateak dino: uste dogu premiazkoa dala aldarazpen horreei buruzko erabagia hartzea, batetik, 2013ko udal aurrekontuan herriko mendien baso aprobetxamenduaren IV. loteari buruzko diru sarrera kobratzea aurreikusita egokieran, erabagi horrek kobratze hori ahalbidetuko dauelako; udalaren kutxan diru sarrerak jasoteko premia dago-eta; eta, bestetik, SNIACEk be aprobetxamenduari buruzko planifikazioa egiteko.

Jarraian, Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau aho batez, bertaratutako EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO udal taldeetako zinegotziek korporazioa legez osotzen daben guztiak izanik.

Jarraian, EAJ/PNV taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Paloma Epalza, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz eta bertaratutako gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak onartu dau, erabagi hau hartu dau:

**SNIACE, S.A.gaz batera partzuergoan sartutako “Sarratxu eta bestelakoak” erabilera publikoko mendiaren baso aprobetxamendua arautzen daben baldintza ekonomikoen agiria eta baldintza tekniko-fakultatiboen agiria (2013ko zemendiaren 26an aldarazoak) onestea; horrela bada, aldarazpenak idatzita geratu dira erabagi honen azalpen zatian adierazotakoaren arabera.**

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

**6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.** Ez da egin eskaerarik edo galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria